


Astekaria



elgoi



100 urte
gure artean



garajea

ASTIGARRAGA

San Frantzisko, 53. Tel. 74 01 86


- ✘ Kirola egiteko makinak
- ✘ Ziklomotore eta motorren konponketa eta salmenta
 - ✘ Motoserrak
 - ✘ Desbrozadorak
 - ✘ Neumatikoak
 - ✘ Bizikletak

Hasi Gabonetako oparietan pentsatzen

Zatozte guregana!

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"

Edari Banatzailea



GURELESA



SANTA ANA 41. ☎ 74 10 41 - 74 11 32



PAGOAGA S.A.

Iturgintza

- ☞ ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK
- ☞ IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN

GAS INSTALATZAILEA,
IG4 baimenarekin.
GAS NATURALA ETA PROPANOA

☎ 74 02 79 - 74 05 12

San Antolin Kalea 13. ELGOIBAR

elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOIKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martín,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Andres

Alberdi, Esteban Antxustegi,

Pello Arrieta, Felix

Arrizabalaga, Mikel Artola,

Izaskun Elizburu, Jon Etxabe,

Jon Eugi, Ina Garagarza,

Joseba Gorosabel, Lorea

Gorostiaga, Amaia

Gorostiza, Xabier Gorriti,

Ana Igartua, Maite Iriondo,

KOKOE, Joseba Konde,

Edurne Korta, Imanol

Larrañaga, Javi León,

Antonio Mafias, Susana

Mujika, Maite Solozabal,

Karmelo Urdangarin, Julen

Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Bizitzaren gogoeta

Pentsa zure bizitza estresatu eta kronometratuan, halabeharrez edo, atsedenerako tartea egokitu zaizula. Imajina paper zuriaren aurrean eseri eta buruari gogotik eragiten diozula. Suposa kezken errepassoa duzula hausnarketaren ardatz ze “hain gutxi erreflexionatzen dugu...”. Sinestu ideiak arrapaladan pilotzen zaizkizula, tentsioarekin.

Injustizia etortzen zaizu gogora, zehaztasunez zer den ez dakizula, baina horrenbeste aholkulari, estereotipo eta ispiluk konklusioak ateratzeko ahalmena zeharo lausotu ez dizutelakoan. Horrenbeste “hau ez egin, hura sinetsi”, zure bizitzaren jabetza galtzen ari zarenik ohartzetik ere ez duzu. “Lehenengo denon interesak, ondoren norberarenak” aldarrikatu eta lehenik zureak, gero besteak. Merez al du hipokresia eta faltsukeriaz hitz egiteak? Iruzur eta ustelkeriaz? Norberak bere usteak propio erein ditzala. Edo hobe ereiten badizkiote, erosoago (sinesgarriago?).

Ekonomia tamalgarria. Nahikoa lan inflazio, langabezia eta abarrek eginiko zuloak estaltzen. Bitartean, gizarte ezberdintasunak handitzen, ekonomikoki, sozialki eta kulturalki.


Hirugarren mundua gero eta aldenduago, gero eta ugariago. Eta denen gaintik natura, ingurugiroa. Baliabideak agortzean izango dira kontuak (pobreentzat behinik behin!). Planetaren eztanda ote boteretsuen bukaera?

Berezko eskubideak ere itxuraldatu ditzaketela eta isilean, errudunak bilatzen saiatzen zara. Ikusitakoak ikusita, baduzu boteretsuekiko halako errezeloa, gehienak gaizki eta beraiek horren aberats azaltzean. Agian potoloegi zaizu, baina hara zure barnean, boteretsuek diseinaturiko kapitalismoa eta gaitzesteko sena.

Eta paso egin nahi duzu, diru apurrik ez eta esateko gutxi duen morroia izaki, zuri ez dagokizu eta sartzeko grinarik ez aizu. Poz eta etsipenekin, batzuez eta besteez paso, eta aurrera! baina erne gero, ozen mintzatzearekin, bizitzan aurrera joate horrekin, sistema den gurpilean ez murgiltzearekin. Gaztea zara eta amets egizu; zintzoa izan eta jasoko duzu zure obedentziaren fruiturik. Segi errealitatea gure esku uzten, ahaztu hausnarketa eta autokritikak.

Mikel Artola

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



“Urasandi auzoa eta herria lotzen dituen zubitik kalerantz nindoala, leiho batetik zaborra ibaira nola botatzen zuten ikusi nuen. Bota zuenak jakingo du zein izan zen eta nire intenzioa publikoki salatzea da. Horrelako jendea dagoen bitartean alferrikakoak izango dira ibaia garbitzeko asmoa eta proiektu guztiak”.

Gazte Asanbladakoak etorri dira Madalako parkean ipinita zeuden pankartak euren tokitik kendu eta ibaira bota dituztenak salatzeko. Ertzainak izan diren susmoa dutela adierazi digute.

Herritar batek deitu digu Antonio Arrillagatik Ubitartera autoz joatea debekatzen zuen trafikoa seinalea kentzeko agindua eman duena txalotzeko. Bere esanetan seinale honek mesede baino kalte egiten zuen eta, dagokionari, berriro ez ipintzeko eskaria luzatu nahi dio.

Jasanezinak

Gasteizen, emakume batek bere senarra tratu txarreatik salatu zuen. Handik egun batzuetara, labanaz hil zuen senarrak emaztea.

- Nafarroako Entzutegi Nagusiko Fólez jaunak dioenez, emakumeen jokaerak eta janzkerak, eraso sexualak eragin ditzakete.

- IPES-en ikerketen arabera, gizonezkoen erdiak baino gehiagok eta emakumezkoen heren batek ez ditu delitu kontsideratzen senar-emazteen arteko tratu txarrak.

- ...
Nola uler daiteke gizarte honetan egoera hauek onartuak izatea baina era berean ez adituak, askok emakume izateagatik edo sexu jokaera bat edukitzeagatik eraso gaitzaketela uste baitute.

Legeak alde batera utzita, balore kontserbatzaileak indartzuz doazela ikusita, beharrezkoa da gizarte honek emakumeekiko pentsakera eta jokaera aldatzea.

Ez da komeni erasoak isiltasunean eta bakardadean jasatea, ez delako arazo indibidual bat, kolektiboa baizik.

Andraize Emakume Taldea

Eskerrak

Elgoibarko Gaixo Zaintzako Pastoralak eskerrak eman nahi dizkie joan den igandeko gaixo eta minusbaliatuen topaketa antolatzen lagundu ziguten pertsona eta erakunde guztiei: Udaletxea, Gloria Mugerz Caja Laboral, Sigma Elkarte, La Unión, Gure-Bide, Ego-Toki, Altzolako Urak, Aitz-Bizkar ardorak Eroski eta Galiza Etxea.

Gaixo Zaintzako Pastoral

Zer gertatzen da BARRENen?

BARREN astekariko 126 eta 127. aleetan antzeman zitezkeen jokabide arraroen zergatia jakin nahi dut, berak ezarritako legeak betetzen ez dituelakoan. 126. zenbakiko “Eskutitzak” sailean eskutiz bat irakur daiteke sekula bukatzen ez den horietakoa, luzea alegia. 127. zenbakian, berriz, 11. orrialdean “HBri erantzun dio alkateak” eskutitza “Motzian Kontatzekuek” albistean sailean azaldu zen, berez (nire iritziz eta BARRENen jokaera jarraituz) “Eskutitzak” sailean azaldu behar zen arren.

Irregularitate hauen zergatia jakin nahi nuke sortzen zaizkidan kontraesanak argitzeko. Besterik ez.

Aldez aurretik eskerrak
S.E.

Zuzendaritzaren oharra:

Honako hau dio BARRENen barne arautegiak eskutitzei buruz: “Eskutitzen luzerari buruz, eskutitzek ahal dela behintzat ez dute makinaz 20 lerro baino gehiago izan behar. 20 lerro artekoak bere horretan onartuko dira. Hortik gorako eskutitzak ekartzen dizkigutenei 20 lerro arte mozteko gomendatuko zaie. Igorleak moztu nahi ez badu “Eskutitzak” sailean TOKIA dagoenean argitaratuko da. 30 lerrotik gorako eskutitzik ez da argitaratuko”.

11. orrialdean “HBri erantzun dio alkateak” albisteari buruz zera esan: Alkateak komunikabideei emandako prentsaurrekoa zenez eta ez berak idatzitako eskutitza, zegokion sailean argitaratu genuen, hau da, albistean sailean.

BARRENeko zuzendaritza

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





AZKUE

Meska kuadrila hau 1966. urteko urriaren 9an elkartu zen **Begoña Sorazu**-ren ezkontza despedida ospatzeko. Egun horren lekuko da Madalako ospitalaren aurrean Azkuek ateratako erretratu hau. **Marisol Odriak** ekarri digu erredakziora argazkia. Benetan zaila zela 14 lagunak elkartzea esan digu Marisolek, baina “egun berezia zanez, kaudrila-kuez aparte, Errenteritik bi lagun gehiago batu zitzaizkigun, Susperregi ahizpak, hain zuzen”. Dotore-dotore orraztuta eta jantzita agertzen zaizkigu hamalau lagu-

nak, okasioak merezi zuen eta.

Hauexek dira neska kuadrila osatzen dutenen izen-abizenak:

Atzeko laurak: **Ana Mari Iriondo, Maria Jesus Urain, Mari Tere Laskurain** eta **Izaskun Uriguen**.

Erdikoak: **Ana Mari Susperregi, Carmen Romero, Mari Glori Perelló, Itziar Beristain, Marisol Odria** eta **Mari Angeles Iriondo**.

Eserita: **Eloisa Susperregi, Edurne Lasa, Begoña Sorazu, Mari Carmen Zubizarreta, Cecilia Urain** eta **Arrate Astigarraga**.

Lana bilatzeko tekniken IKASTAROA



ELGOIBARKO EMAKUMEEI ZUZENDUA

- **Ikastaro emailea:** Zabaltzen-Sartu elkarte
- **Tokia:** Mekanikan
- **Data:** Azaroaren 28tik abenduaren 20ra
Astearte eta asteazkenetan
- **Ordutegia:** 3etatik 5,30etara
- **Izena emateko:** Bidali izen abizenak, telefonoa, ikasketak, lan esperientzia eta aintzinakotasuna INEMeko listan Elgoibarko 168 posta kutxatilara, azaroaren 22a baino lehen.

ANTOLATZAILEA: **Andraize** Emakume Taldea • LAGUNTZAILEAK: Udala, Emakunde eta Foru Aldundia.



Nork ez du inoiz elizkizun bat entzun organoaren musika paregabeak lagundua? San Bartolome parrokiaren aurkitzen den organoak 100 urte bete ditu aurten. Hori dela eta, hainbat ekintza antolatu dira aipatu mendeurrena ospatzeko. Gure nahia, instrumentu ezagun baina, era berean, ezezagun horretara hurreratzea izan da. Hona hemen emaitza.

Organoa herri gehienetan egon den arren, urte askotan ahaztua edo alboratua eduki den instrumentua izan da. Hainbat eta hainbat orri idatzi izan dira kaperei buruz, altareei buruz baina oso gutxi jaso da organoen inguruan. Eta ondo baino hobeto merezi du instrumentuen erregea den honek guztion aldetik omenalditxo bat. Une bakar batez bada ere, gutxienez guztion ahotan eta oroimenean izatea. Artelan paregabeak dira organoak, mendez mende hobetzen joan direnak.

Elgoibarko lehen organoak

Olasoko parrokiaren zaharrenean kokatzen zen lehen organoa eta 1563. urte inguruan izan zen eraikia. Herritarrek gustu handiz entzuten zuten organoa eta instrumentu hau hobe-tzearen egin zitekeen guztian laguntzeko prest agertzen ziren. Horrez gain, Batzar Orokorra ospatzen zenean bailarako herrien aurrean irudi ona eman behar zen eta garai haietan ekintza erlijiosoen zuten garran-tzia kontuan izanik, organo on batek prestigioa ematen zion herriari. 1655ean herritarrek organoaren aldeko kanpaina bat egin zuten eta diru kopuru ederra jaso zen organoa konpontzeko.

Iriondo anaien laguntza

1716ko abenduaren 30ean inauguratu zen San Bartolome parrokiaren eta urtebete beranduago ordura arte Olasoko Parrokian egon zen organoa ekarri zen. Antonio Balzategi oñatiarrak egin zituen trasladoa eta konponketak. 1833 urte inguruan organoa oso egoera txarrean zegoen. Fray Diego Bidaburuk instrumentua aztertu zuen eta Isidro Garridori eman zitzaion honek beharrezko konponketak egin zituan. Aurrekontua 6.000 errealekoa izan zen. 1874an ere, 2. guda karlistaren ondorioz soldaduek erabat puskatu zuten organoa eta berriz ere berritzu beharra izan zen. 1893an, organu berri bat egitea erabaki zen. Juan Luis Etxeberria, bost aldiz Elgoibarko alkatea izan zena eta bere anaia Francisco, Gasteizko Katedraleko bigarren kanonigoa, hil zirenean 6.000 pta. utzi zituzten organo berri bat eraikitzeko eta Parrokiako dorrean tximistorratz bat jartzeko. Diru horrekin nahikoa ez zenez, parrokiak Udaltxean 10.000 pta.ko dirulaguntza eskatu zuen. Organo berriaren egilea Akilino Amezua izan zen eta muntaia Lope Alberdik egin zuen. Organo berria, gaur egun ezagutzen duguna, 1895eko otsailaren 21ean inauguratu zen.

Funtzionamendua

Organoak sortu zirenean funtzionamendua manuala zen. Pertso-

na batek hauspo moduko bat astintzen zuen eta airea hedatzen zen hodieta zehar. 1966. urtetik aurrera, ordea, motore elektriko baten bidez funtzionatzen du, automatikoki. Benetan harrigarria da organoaren barruan dagoen mekanismoa, izugarriko hodiak, egurrezkoak eta metalezkoak, hauspo elektrikoak harri pisutsuen azpian... Koroan guztiok ikusten dugun pianotxo horrez gain, atzekaldean mundu oso bat dago. Eta hori guztia da organoa. Biolina, okarina, flauta, tronpeta... Instrumentu guztien batuketa da organoa, horregatik deitzen zaio erregea. Makina bat tekla ditu eta horiek guztiak konbinatuz doinu ezberdinak lortzen dira. Elgoibarko organoak metalezko 1128 tubo ditu eta oraindik ere Olasoko parrokiaren zegoen organoak zituen tronpetak mantentzen ditu.



Organojoleak



Ildefonso Lizarriturri



Ignacio Bereziartua

Garai batean ohore handia zen organojolea izatea. Orduan, organoak berak prestigioa ematen zion herriari eta elizkizun handiak beti organoaren doinuaz laguntzen ziren. Halere, parrokia bakoitzarentzat



Asensio Bereziartua



Jesus Mujika

organojole bat izatea oso garestia ateratzen zen eta ahal zen neurrian beste hainbat zeregin ere ematen zitzaizkien. Elgoibarren izan zen lehen organojole ofiziala Ildefonso Lizarriturri izan zen, gero Inazio Bereziartua, Asensio Bereziartua, Jesus Mujika presbiteroa, Iñaki Irureta azkoitiarra, Miguel Forcada presbiteroa



Iñaki Irureta



Jose Antonio Ezeiza

eta azkenik Felix Lodoso aritu ziren. Gaur egun Parrokiak ez du aurrekontu nahikoa organista bati ordaintzeko. Halere, ofiziala ez den arren, Julian Iriondok, noizean behin, korora igo eta organoa joaz elizkizunari bestelako ikutu bat ematen dio.



Miguel Forcada



Felix Lodoso



Julian Iriondo

Musika klasikoa

Kaixo. Nire izena Rafael da, hogeita hamar urte dauzkat eta izugarri atsegin dut musika klasikoa. Duela zazpi urte lagun baten bidez ezagutu nuen musika klasikoa. Ez nintzen berehala musika mota hori entzuten hasi, nire gustuak ondo bes-telakoak ziren: Iron Maiden, Kiss, Scorpions etab.

Lehendabizi entzun nuen obra Beethovenen “Misa Solemne” izan zen eta benetan zoragarria izan zen.



Sekula ez nuen pentsatu klasiko batek horrenbeste emozioatuko ninduenik. Ez daukat lehenetarik konpositoreei dagokienean, baina oso gogoko ditut “klasiko herrikoiak” deitzen direnak, esaterako, Mozart, Beethoven, Bach, Wagner, Strauss, Vivaldi, etab.

Ez dakit sekula galdetu ote diozuen zuen buruari zergatik klasi-koek irauan duten hainbeste mende. Gaur egun rock talde batek oso ona izan behar du urtebete baino gehiago irauteko. Musikari hauek, berriz, maisu lanak idatzi zituzten, denboraren eta historiaren mugak gaindituz.

Horregatik garrantzitsua da guraso zein hezitzaileek musika klasikoa apezkatzen erakustea, musika modernoa baztertu gabe. Piezarik ezagunenekin hastea egokia litzateke, Vivaldiren “Cuatro Estaciones”, Beethovenen 5. Sinfoniarekin esaterako.

Etxetik mugitu gabe

beste leku batzuetara eramaten zaitu musika klasikoak. Kaskoak jarri eta lehenengo konpasak entzutean, inguruko arazo eta istilu guztiez ahazten zara. Zazpi urte darmatzat musika klasikoa entzuten, baina oraindik ez naiz zuzeneko kontzertu batean izan.

Amaitu aurretik, musika entzun dezazuen eskatu nahi dizuet. Estilorik baztertu gabe, baliteke denboraren poderioz, musika klasikoa gustatzea, niri gertatu zitzaidan bezala.

Azkenik, Pitxintxu dendako Mari Jose eta Izaskuni eskerrak luzatu, artikulu hau idazteko nitaz gogoratu izateagatik.



RAFAEL BARQUERO



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte

EUSKARA TEKNIKARI BAT BEHAR DA

Elgoibarko elkarte eta erakundeetan euskararen erabilera suspertzeko **HITZARMENEAN** lan egiteko.

ELGOIBARKO IZARRA Elkarteak PROPOSATU eta Elgoibarko UDALAK BABESTUTAKO plangintza.

ESKATZEN DA

- Euskara maila altua
- Elgoibar ondo ezagutzea
- Harremanetarako dohaina

ESKAINTZEN DA

Urtebeterako egun osoko kontratua (luzatzeko aukerarekin)

INFORMAZIO GEHIAGO

☎ (943) 74 16 26 Imanol Curriculumak jasotzeko azken eguna: azaroak 26

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte, Ubitarte 4 behea. 20870 ELGOIBAR

Zein musika mota entzuten duzu?



NAGORE LASUEN

17 urte, ikaslea

Musika modernua, klasikua gutxio. Bakalao gaupasa asmuakin urtetzen naizenerako ondo dao baina bestela nahixao dot euskal rocka.



M. LUISA OLARIAGA

65 urte, etxeoandrea

Klasikoa, lehengoa. Ez daukat diskorik etxean, irratan entzuten dut. Euskal musika, klasikoa, boleroak, nere sasoikoak gustatzen zaizkit.



ANTONIA VARGAS

42 urte, garbitzailea

Pavarotti, Nana Mouskuri eta klasikoak atsegin ditut. Modernoen artean Sergio Dalma eta Alejandro Sanz ere entzuten ditut. Eta bestela, nik kantatzen dut!



M. ANGEL RODRIGUEZ

35 urte, errektifikatzailea

Musika gutxi entzuten dut. Bakalaoa bat ere ez dut atsegin. Musika lasaia entzuten dut batez ere, blues-a, beltzen musika, folk tankerakoa...



ANTONIO RODRIGUEZ

50 urte, langabetua

Irratan entzuten dut klasikoa batez ere. Sinfoniak, kontzertuak eta horrelakoak letradunak baino gehiago gustatzen zaizkit.



PATROCINIO HERNANDO

65 urte, jubilatua

Herrian edozein kontzertu dagoela, Bandarena, Easo abesbatzarena... emaztearekin denetara joaten naiz. Irratan denetik entzuten dugu, trikitia ere bai.



ZURE SEMEAK
ETORKIZUN HANDI
BAT DAUKA
GUK ASEURATU
EGINGO DIZUGU.

Pedro Muguruza 4 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 26 99



**HERRI-
GAIN**
ERRETEGIA
San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

■ Ganbararen kantaldia

Elgoibarko AEK euskaltegiak Ganbara taldearen kantaldia antolatu du datorren ostegunerako, hilak 23, Gipuzkoako ikastetxeentzat Aldundiak euskal kantagintza bultzatzeko antolatzen duen kanpainaren barruan. Herriko Antzokian izango da kontzertua arratsaldeko 8etan. Ganbararen seigarren diskaren “Itsas Zabalean” bildumako kantak entzuteko aukera izango da. AEKko ikasleak ezezik, euskal kantagintza gogoko duten guztiak ere gonbidatuak daude saiora. Sarrera doan da.

■ Gurutze Gorriaren erakusketa atzeratuta

Hil honen 17rako iragarrita zegoen Gurutze Gorriaren erakusketa atzeratu egin da dena prestatzeko denborarik izan ez dutelako. Gipuzkoako Gurutze Gorriak 125. urteurrena ospatzen du aurten eta urte hauetan guztietan batutako oinarrizko materialarekin erakusketa egiten dihardute Gipuzkoa osoan. Elgoibarren aurrerago izango dugu erakusketa ikusteko aukera.

■ Milagrosaren meza bereziak

Ama Birjina Milagrosaren Bederatziurrena ospatuko da hilaren 19tik 27ra bitartean. San Bartolome parrokiaren elizkizun bereziak egongo dira egun eta ordu hauetan: Hilaren 19an goizeko 10,30etan. Hilaren 20, 21, 22, 23 eta 24an (astelehenetik ostiralera bitartean) goizeko 9etan eta arratsaldeko 7etan. Hilaren 25, 26 eta 27an (larunbata, igandea eta astelehena) goizeko 9etan eta arratsaldeko 8etan. Hiru egun hauetan arratsaldeko 8etan otoitzaz gain, meza ere izango da Aita Sueskun pauldarraren eskutik. Madalako elizan, berriz, hilaren 19an eta 26an (igandea) goizeko 8,30etan eta 12,30etan izango dira elizkizunak eta astegunetan, larunbata barne, goizeko 9etan.

Intsumituen aldeko herri plataforma eratu da

Intsumituen aldeko plataformaren aurkezpena izan zen asteartean. Herriko pertsona ezagun eta ez hain ezagunek osatutako talde honen ordezkari batek “Intsumituen aldeko agiria” izeneko dokumentua irakurri zuen. Agiriak “egitura militarrek zalantzan jartzen dituen zigortzen duten legeak” salatzen ditu eta beraz, “intsumisioa ez zigortzea” eskatzen dute. Ekintza testimonial hutsa izan bazen ere, “aurrerapauso inportantea” izan da Antimilien ustetan plataforma hau eratzea. Plataformako bozeramaleen hitzetan “intsumisioaren aldeko mugimendua zerbait marjinala delako ideia baztertu behar da”. Plataforma honen bidez “intsumituek iritzi, adin eta pentsamolde

ezberdineko herritarren laguntza dutela adierazi nahi dugu, modu sinbolikoan bada ere”.

Antimilien ekimena

Herriko jende ezberdinez osatutako plataforma hau eratzeko ideia Talde Antimilitaristaren baitan sortu zen. “Intsumisioa ez da borroka indibiduala, gizarte guztiari dagokion zerbait da” adierazi zuten Antimilikoek. Plataformak bere dinamika propioa izatea nahiko lukete.

Une honetan Luziano Arregi elgoibartarra hirugarren gradua betetzen ari da intsumitu izateagatik. Beste intsumitu asko epaitu dituzte dagoeneko eta aurrerantzean beste zenbait ere epai ditzakete.



■ Odol ateraldia

Gaur, hilak 17, odol emaileen talde bat arratsaldeko 6,30etatik 8,30ak arte P.M. Urruzuno 8ko egoitzan izango da. Aurrez deitu zaienek bai eta lehen aldiz odola atera nahi duten guztiek izango dute odola emateko aukera. Deialdia 18 urtetik gorakoei luzatu nahi die Odol Emaileen Elkarteak.

■ Intsumisioen aldeko manifestaziora autobusa

Elgoibarko Talde Antimilitaristak bihar, larunbata, hilak 18, soldaduzkarako zozketen aurka Donostian izango den aldeko manifestaziora joateko autobusa antolatu du. Manifestazioa arratsaldeko 6etan hasiko da Donostian eta autobusa 5etan aterako da Plaza Handitik.



San Bartolome parrokiako lehendabiziko neska monagiloak dira Xabi Gomez apaizaren ezker-eskuinean dauden bi neskatoak. Elgoibarren, dena den, Madalako elizan egon omen dira lehenago neskak monagilo gisa. Argazkikoak Maitane Oria eta Maria Bilbatua dira, 10 urtekoak biak. Maitaneren etxean pozez hartu dute monagilo izatearen kontua, “emakumeek gizonezkoenak ziren lanak egitea ondo dagoela dio nire amak” esan digu Maitanek. Mariaren amari, ordea, ez omen dio grazia handirik egin. Dena den, bi neskatoak pozik joaten dira 11,30etako mezatara monagilo lanak egitera. Aldarean ardoa eta ogia prestatu eta meza ondoren jasotzea da monagilo hauen eginkizuna. Monagilo izateak ilusio egiten dien arren, ez dute moja bokaziorik. Maitanek moda diseinatzaile izan nahi du eta Mariak kazetari.



Elgoibarko Gaiso Zaintzako Pastoralak Gipuzkoako ezinduen topaketa antolatu zuen joan den igandean. Plaza Handian txoko anitzetatik etorritako ezinduak elkartu ziren, meza entzun ostean Jubilatuen Etxean bazkaltzeko asmoz. Argazkian bazkarian izan ziren zenbait elgoibartar agertzen dira, bazkarian laguntzen jardun zuten emakumeekin batera.

■ Zinea ertainetako ikasle eta gurasoentzat

Udal Ongizate Saileko Drogomenpekotasunen Zerbitzuak antolatutako “Osasun Heziketa” programaren barruan ertainetako ikasleentzat zine emanaldia izango da hilaren 22an, asteazkena, Herriko Antzokian. “La niña da tus sueños” pelikularen bi emanaldi egongo dira ikasleentzat, goizeko 9etan eta eguerdiko 12etan. Arratsaldeko 7etan gurasoentzat proiektatuko da pelikula berbera.

■ Santa Klarako ikasle ohien bazkaria

Santa Klarako mojekin ikasi zuen emakume talde batek bazkaria egingo du hil honen 26an, igandea. Bazkaria Altzolako Zubia jatetxean izango dute eta lehenago San Bartolome parrokian 12,30etako meza. Bazkaltzera joateko Plaza Handian elkartuko dira eguerdiko 1ean. Izena emateko Mari Kamen Unanueren dendara zuzendu.

■ Organoari buruzko hitzaldi eta kontzertuak

Parrokiak, Eliz Abesbatza eta Musika Fundazioa San Bartolome parrokiako organoaren mendeurrena ospatzen ari dira. Hori dela-eta, datorren asteazkenean, Santa Zezilia eguna, hitzaldia emango du Pello Zabala Arantzazuko fraileak “Organoa euskal liturgian” gaiaren inguruan. Hizlariaren azalpenei musika jarriko die Aitor Olea organojoleak. Datorren ostiralean, berriz, hilak 24, organo kontzertua eskainiko du Esteban Landart organojoleak. Bi ekitaldiak San Bartolome elizan izango dira arratsaldeko 8etan.

■ Zazpikiren bilera

Zazpiki irriatiak bilera egingo du larunbatean, hilak 18, goizeko 11,30etan. Interesa duten guztiak dei egiten zaie Ganbaran izango den bilerara ager daitezen.

Maite Janeiro:

"Soinua odolean daramadan zerbait da"

Zumarragakoa izanik jaiotzez, elgoibartar batekin ezkondu eta zazpi urte daramatza Elgoibarren. Soinu irakaslea delako ezagutzen dugu bereziki baina Soinu Titulu Nagusia ezetik, Enpresa Laguntzaile ikasketak burutu zituela frogatzen duen agiria ere badu gordeta etxeko kajoiren batean.

1958an mundura etorri zen emakume honen lehenengo soinu irakaslea bere aita izan zen arren, Bikondoarekin bukatu zuen karrera. 16 urte zituela hasi zen klase partikularrak ematen bere etxean. Zumarragako akademian 3 urtez lanean egon ondoren, 1984tik Elgoibarko Musikeskolan dihardu.

- Zergatik soinua?

- Beharbada etxean bizi izan dudan instrumentua delako. Aita soinujolea, aitona ere soinujolea eta osaba soinujolea ere badugu. Musika beti gustatu izan zait eta soinua odolean daramadan zerbait da.

- Gustokoa al da lana?

- Momentu hau ez da oso ona LOGSE dela-eta aldaketa asko baitaude. Gainera, ez dakit zergatik baina soinuan gero eta ikasle gutxiago daude. Halere, konpentsazio asko dauka soinu irakasle izateak. Batetik, soinu karrera nirekin bukatzen duten ikasleek ematen didaten satisfazioa, lehen "pinitoak" egiten daudenean ematen duten poza, txapelketa eramateak, soinu taldearekin irteerak egiteak...

- Eta desabantailak?

- Beti ezin da ikasle batekin duen onena atera bere ikasketek, partikularrek, entrenamenduek eta abarrek denbora asko kentzen baitie. Gainera, ikasle batzuek ez dute benetako afiziorik izaten eta hauen aurrean inportentzia sentitzen da.

- Ilusio bat?

- Soinuarekin hasi berria den nire semea edo



"Behin, neskabila nintzela eta Galiziara oporretara trenean gindoazela bagoiko bidaiariek soinua jotzen jarri ninduten"

ikasleren bat soinujole profesionala bilakatzea eta bere kalitateagatik mundu osoan ezagutua izatea.

- Zer esango zenioke soinua ikasi nahi duen bati?

- Benetako afizioa eta ilusioa izan ditzala. Interpretatze bat izateko gogor egin behar da lan baina soinuak posibilitate ugari eskaintzen ditu. Musika folklorikoa, polifonikoa eta klasikoa interpretatzea daiteke. Gainera, bere erregistro zabalarri esker, beste edozein instrumenturi egokitu daiteke.

- Ezkontzetan ibiltzen omen zara jotzen, ez?

- Bai, duela 16 urte Zumarragako beste lau kidekin batera "Askotan" izeneko taldea sortu genuen. Nik teklatura jotzen dut eta taldean bizi dugun giroa asko gustatzen zait.

- Zein iritzi duzu txapelketek buruz?

- Ikasleei ondo etor dakieke jendearen aurrean jotzen ohitu daitezen. Batzuen ustez txapelketen zentzu konpetitiboa kendu egin behar zaie baina, nire

ustez, konpetibitatea ondo dago; bizitza bera ere konpetizioa baita. Gustatzen zait nire ikasleak txapelketa eramatea.

- Irakasle ezetik ikasle era bazara.

- Nik tekladun soinuarekin egin nuen karrera baina soinua instrumentu gazte bat denez, etengabe eboluzionatzen dihardu bai estructures bari mekanika aldetik. Hortaz, beharrezkoa zait eboluzio horren haria jarraitzea eta horretarako noizean behin Hondarribiko soinu akademi batera joaten naiz ikastera.

- Soinuarekin erlazio turiko oroitzen?

- Badago anekdota bat maitasun handiz gogoratzen dudana. Behin Galiziara oporretara trenez gindoazela, nire aitak soinua jotzen nuela esan zuen bagoian eta berehala jarri ninduten jotzen. Abesti folklorikoak jo nituen eta konturatu orduko bidaiariek txanponez bota zidaten soinuaren kaxa. Oso bidaiaria polita izan zen.

- Zer esango zenioke musikeskolako zuzendariari?

- Bere esku badago, kontserbatorioa toki berri batean kokatzea.

AMAIA GOROSTIZA

Zcj cttcmBERRI

3. ADINARI BURUZKO GEHIGARRIA



Joan den igandean hasita eta maiatzera bitartean, Jubilatuen Etxean dantzaldia izango da igandero. Arratsaldeko 6etatik 9ak arte, nahi beste aukera izango dute bertara hurreratzen direnek hainbat eta hainbat abestiren bueltan dantza egiteko. Han izan ginen joan den astean eta, benetan harritzekoa zen bertako giroa! Dantzarako pista egokitua, inguruan aulkiak zeuden eta haietan jendea

eserita. Gelatxo jotzen hasi orduko, gizonek edo emakumeek aulkitik jaiki eta norbaiti dantza egiteko gonbitea luzatzen zioten. Eta han aritzen ziren, jira eta bira mugitzen. Ez pentsa, gainera, edozein modutan aritzen zirenik, tangoa bazen, tangoa dantzatzeko zuten betebetea eta pasodoblea zenean beste hainbeste. Kamarari begira, zein baino zein alaiago ikusten zen objetiboaren beste aldetik.

Richi *Zorionak eta ondo pasa jaiak!*
ILEAPAINDEGIA • DEPILAZIOA • MASAIA
ILERAKO TRATAMENDUETAN ESPEZIALISTAK:
Koipea • Kaspas • Erorketa
Errosario 6 - 1. Tel. 74 30 11. ELGOIBAR

**DEBAPE**
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa
• DISEINU GRAFIKOA • OFFSET LITOGRAFIA • FOTOKONPOSIZIOA
• PUBLIZITATE DISEINUA • ERA GUZTIAKOKO IRAGARKI KOMERTZIALAK
Olaso industrialdea, 27 • Tel.: 74 40 58 • Faxa: 74 41 78 • ELGOIBAR

ANA ETXEBERRIA:

"Zoriontsua izan nitzan klasiak ematen"

Señorita Anita izan da eta da, oraindik ere, emakume hau jende askorentzat. Eibartarra jaiotzez, elgoibartar batekin ezkondu eta hemengo hainbat eta hainbat haurri eman zien eskola. Neskei eta mutilei. Nabari zaio emakume honi bizitzan lan asko egina dela, eta garai bateko nerbioa mantentzen du. 75 urte dituen emakume honek argi utzi nahi izan du, "nere ikasle izandako batzuri kalia saludatzen ez badiuet, ikusten ez ditzutelako da. Bista oso txarra dakat eta".

- Zure garaian ez zen bat ere arrunta emakumeek ikastea.

- Ez, egixa da. Nik Eibarren ikasi naban, Aldatzen. Zazpi emakume ginan eta guk matematika ikasi nahi genuen baina irakasleek ez ziguten lagatzen, gizonezkuen gauzia zala eta. Horregatik, magisterio ikasi genduan, emakumientzat aproposaua edo.

- Elgoibarrera ezkondu eta klaseak ematen hasi zinen.

- Bai. Lehenengo Santa Ana kaleko etxian ematen naban baina erre egin zan. Gero, San Roken, oin institutua dauan ondoko etxia egin gendun eta hantxe segitxu naban. Garai hartan batxilergua eitzeko kanpora jun bihar zan eta guk ematia erabaki gendun.

- Eta azterketak?

- Donostian. Autobusian Debara eta han esnedunen trena hartzen gen-

dun Donostira arte.

- Zenbat ikasle zenituen?

- Asko, 100 egon zian momentu baten. Pentsatu, gela berdinian elkartzen nitxun kurtso desberdinetako ikasleak. Haura kaos bat izaten zan eta nik daneri, bakoitzari beria erantzun bihar.

- Neskak eta mutilak, ez?

- Bai eta horrekin ere euki nitxun problemak. Orduan neskak alde batetik ikasten zeber eta mutilak bestetik. Ni berritzaile bat izan nitzan, bixeri batera erakusten hasi nitzan eta. Entzun bihar izan nitxunak!

- Irakasle gogorra al zinen?

- Gogorra izan bihar hainbeste umekin! Baina gero segitxuan euren alturan ipintzen nitzan. Errespetua eukitzen erakutsi bihar jakue baina horrekin batera laguna ere izan bihar zera.

- Eta nola ezartzen zenuen errespetua?

- Makila luze bat eukitzen naban, sagarrondo baten adarra, bateron bat gaizki portatzen bazan, zast!, haretxekin jotzen nion eskuan.



- Eta zigorrak?

- Zigortzen nitxun baina azkenian ni ere zigortzen nitzan. Zapatu eta domeketan etortzeko esaten niuen eta, klaro, jai euki biharrian, ni ere lanera jun bihar.

- Halere oso maitatua zara.

- Bai, ikasle asko maitxe nitxun eta eurak ere ni. Oin ere, kalia ikusi eta besarkatzeko desiatzen egoten naiz.

- Zure garairik onenak Lanbide Eskolan pasa al zenituen?

- Baietz esan leike. Han zazpi urte ein nitxun eta oso gustora. Lehen, dana nere esku egoten zanian ez nakan denborarik ezertarako. Goizian goiz jaiki eta egun guztia klasia ematen egon eta gero, gabian hurrengo egunekua preparatu bihar naban. Ezer gehixo itxeko denborarik gabe! Profesionalian lasaitxu nitzan piskat.

- Polita al da irakastea?

- Oso politxa, ni oso zoriontsua izan naiz. Bestiei zuk dakizuna erakustia oso politxa da eta norberantzat ere oso aberasgarria. Esaten dan beze-la, norberak bestiei irakasten ikasten dau.

- Eta omenaldia ere egin zizuten.

- Bai, oso emozionantia izan zan. Mezia euki gendun eta gero bazkari-xa. Sigman izan zan eta ikasle mordo bat etorri zian. Eta espezial gordeta dakat Don Carlos parrokuak idatzi ziazan bertsuak.



“
Neskei eta mutilei
batera erakusten niuen,
hortan berritzailea izan
nitzan
”

Ilusiorik bete al zaizu?

Nork ez ditu ilusioak izaten? Umetan eta gaztetan gauza asko egin nahi izaten ditugu eta aurrera begira jartzen gara, bizitzak noizbait ilusio horiek egia bihurtuko dituen esperantzan. Kalera atera gara eta hainbat pertsonari galdetu diegu ea bi-

zitzak zenbat ilusio eman dizkion. Dena lortzerik ez dagoen arren, ilusiorik txikiak behintzat sarri betetzen dira. Eta betetzen ez badira ere, bizitza pozgarriagoa izaten da ilusio horiek tarteko, ilusiorik gabeko bizitarik ezin baita bizi.



Elena Miguez

65 urte

Gaztetan neukan ilusioa bizitzan oreka bat izatea zen, familia, lana... Hori lortu nuen baina bizitzak gaixotasuna eta lan falta ere eman dizkit. Eskerrak gaur egun bilobek poz asko ematen dituzten, eurak dira nire gaurengungo ilusioa. Eurei eskerrak beste preokupazioak ahaztu egiten zaizkit.

zuzten, eurak dira nire gaurengungo ilusioa. Eurei eskerrak beste preokupazioak ahaztu egiten zaizkit.



Juan Marin

68 urte

Ni astoarekin ibiltzen nitzen eta bidaiatzeko ere aukera handia izan dut, beraz... Gainontzean, nire ilusioa seme-alaba asko izatea zen eta izan ditut, bederatzi seme-alaba bizi zaizkit eta horiei hil direnak gehitu behar zaizkie. Gaur egun ilusiorik apenas geratzen den, goizean goiz jaiki eta mendira joatea, lagunekin egotea...

hil direnak gehitu behar zaizkie. Gaur egun ilusiorik apenas geratzen den, goizean goiz jaiki eta mendira joatea, lagunekin egotea...

Manuel Rojano

60 urte

Ilusio asko izan nituen gaztetan baina dirua falta zen eta... Umetan jostailuak nahi eta dirurik ez. Hori bai, autoa izatea behintzat lortu dut. Gaur egun hegazkina hartu eta Ameriketara bidaiatzea izango litzateke nere ilusioa baina, orain ere, dirurik ez. Loteria tokatzea izango litzateke ilusiorik handiena, hartara gainontzeko ilusio txikiak bete ahal izateko. Halere, osasuna izatea da oinarrizkoena.



Alicia Marcos

69 urte

Gaztetan dana eitxen da ilusiuakin, dana da ilusioa. Nere garaixan ondo pasatzeko gogua eukitzen gendun, lagunekin urten, dantzara jun... Ostantzian, oin baino anbizio gitxio zakagun, nahiko konformistak ginan. Oin ere, Benidorrera juten gera urtero trankil egotera, hori eta familixiakin, seme-alabekin eta bilobekin egotia da gure ilusioa. Danak osasunakin eta pozik ikustia.



Eugenio Diego

76 urte

Nere ilusio haundiena ikastea zen. Ume nintzela Santanderrera bidali ninduten, amonaren etxera. Eskolako irakasle batek aitari esan zion nik ikasteko gaitasun handia nuela baina aitak ezetz, 12 urte bete bezain azkar lanerako nahi ninduela. Ezkondu eta seme bat izan nuen eta hark ikasi egingo zuela zin egin nuen. Nire semeak Arrasaten injenierutza ikasi zuen, bere promozioa lehena izan zen eta lanean dago gaur egun. Nik ez nuen lortu nire semearengan gauzatua ikusi dut eta nere ilusioa bera noraino iristen den ikustea da. Gauza handiak egingo ditu.

zuzten, eurak dira nire gaurengungo ilusioa. Eurei eskerrak beste preokupazioak ahaztu egiten zaizkit.



Trinidad Lete

71 urte

Guretzat ilusioa lana eukitzia zan, lana eitxia eta denboria zauanian disfrutatzia. Gero, nobixua topau naban eta ezkontzia zan nere ilusioa eta halaxe in naban, umiak etorri zian... Oin seme-alabak ezkondu jatatz, senarra hil zan eta bakarrik bizi naiz. Biajatzia ere ezinezkoa dakat, mareatu eitxen naiz eta. Oingo ilusioa, jai danetan seme-alabak eta biloba danak etorri eta elkarrekin bazkaltzia izaten da.

hil direnak gehitu behar zaizkie. Gaur egun ilusiorik apenas geratzen den, goizean goiz jaiki eta mendira joatea, lagunekin egotea...

Sexualitatea bizitza osorako da

Sexualitatea pertsonarekin jaiotzen da, berarekin da bizitzen eta berarekin hiltzen. Azken urteotan izan den iraul-tzarik garrantzitsuena sexualitatean ezagutu da, gauza asko aldatu dira, emakumearen jarrera, esate baterako. Horrekin batera, informazioa zabaldu da, sexualitateaz disfrutatzeko erak ezagutzen dira, haurdun ez gera-tzeko neurriak hedatu dira... Halere, honen guztiaren aurrean badirudi adin batetik aurrera pertsona guztiengan sexualitatea desagertu egiten dela edo, beste era batera esanda, sexua praktikatzeari utzi egin behar zaiola. Pertsona nagusien arteko harreman sexualak ez dira era naturalez ikusten eta, oraindik orain, etxeko aitona sexualki aktiboa izatea begi txarrez ikusten da eta "viejo verde" deitzen zaio.

Halere, zahar-tzaroa onartzen duen bikote batek ez dauka zertan sexua baztertu. Are gehiago, gerta daiteke gaztaroan baino plazer gehiago lortzea, batez ere emakumearen kasuan, haurdun geratzeko arriskua jaitsi egiten baita eta konfiantza eta intimitatea gehiago egoten, bai eta denbora gehiago ere. 50 eta 60 urte artean %95 sexualki aktiboa dira, bai bikotean bai eta bakarka ere. 60 eta 70 urte bitartean %85era jaisten da kopurua eta 70

urtetik gorakoen artean %70era. Kantitatean jaitsi egiten bada ere, kalitatean igo egiten dela esan daiteke.

Dena dela, sexualitate genitala bezain garrantzitsua, edo gehiago, afektibitatea da. Goxotasuna, igur-tziak, musuak eta romantizismoa. Jubilatuta eta gero denbora gehiago izaten du bikoteak eta aurretik galdutako denbora berreskuratzea komeni da. Edozein arazo dagoenean bikoteak hitzegin egin behar du, komunikazioa oso garrantzitsua da eta arazoa bikoteak konpondu ezin dutenean profesional batengana jo behar dute, biek batera. Esanak esan, adinean aurrera egin arren, sexuak beti bere tokia izan behar du, edozeinentzat onuragarri baita, bai fisikoki bai eta psikikoki ere.

Iturria: Sesenta y más. 1995-iraila



Juliana Irizar

Txahalaren brazuelo estofatua

OSAGAIAK:

Kilo t'erdiko brazueloa. Bi porru eder, pare bat kipula gorri (fuertetxoagoa omen da), eta beste bi azenario eder. Piper berde bat. Tomatetxo bat, hiruzpalau berakatz ale eta perrejila.

NOLA EGIN:

Porrua, azenarioa, kipula, piperra eta berakatz txikitu eta zulodun ontzi batean jarri.

Kazuela handi batean oliba olio bota eta sutan jarri berakatz ale bierekin. Brazueloa gatzarekin igurtzi eta olio berotara bota. Alde batetik gorritzen denean, buelta eman, alde guztiak ondo gorritu arte. Muturrak ere gorritzea komeni da. Ondoren txikitutako berdura guztiak brazueloaren aldamenetara bota eta tapatu. Hiru ordu laurdenez eduki eta buelta eman brazueloari. Une honetan basokada bat ardo zuri gehitu. Beste hiru ordu laurdenez laga beste aldea egin dadin. Saltsa agortzen bada okela-salda edo ura bota

Brazueloa eginda dagoenean plater batera atera eta berdurak triturdorekin xehetu. Jaterakoan brazueloari soka kendu eta zatitan ebaki, ez osomehe eta ez oso sendo ere. Saltsatan berotu.

Angel Garate

Udaltzaina



- **Noiz jartzen zara semaforo bat bezain gorri?** ▶ Adibidez orain bertan, elkarriketa egiteko unean.
- **Zure etxetik lanera, autopista bat ala baso bat?** ▶ Baso bat.
- **Markinako bideko errebueltak ala Azkarateko aldapa?** ▶ Azkarateko aldapa.
- **Transporte publikoa ala norberaren autoa?** ▶ Biak, egoeraren arabera.
- **Nori edo zeri jarriko zenioke "stop" seinalea?** ▶ Alkoholari, drogari... orokorrean horrelako asuntoci.
- **Nori galaraziko zenioke pasoa zure etxera?** ▶ Umore txarrez datorrenari.
- **Zerk jartzen zaitu atasko batek bezain urduri?** ▶ Lanean askotan jartzen naiz urduri. Adibidez, kotxe bat denuntziatu behar badut eta jabeak bost minutu barru etorriko dela esan eta agertzen ez denean, oso urduri jartzen naiz.
- **Noiz ematen dizkiozu zure buruari rotonda bati bezala birak?** ▶ Egunero. Beti nago zerbaitetan pentsatzen edo zerbait egiten.
- **Jartzen al diozu zure buruari abiadura mugarik?** ▶ Ez, nahiko ausarta naiz.
- **Herriko zein proiekturi emango zenioke argi berdea?** ▶ Gazteentzako ekintzak antolatzeari.
- **Zer iruditzen zaizu kamioi bat bezain astuna?** ▶ Isunak ipintzea; ez zait batere gustatzen.
- **Ostiralean Sigmako zubian ala larunbatean Madalan?** ▶ Biak nahiko toki txarrak diren arren eta sarri larunbat arratsaldeetakoak lastima ematen badit ere, azken hau aukeratuko nuke bat hautatzekotan.
- **Atezain ala udaltzain?** ▶ Atezain izatearena utzita badaukat ere, biak ditut gustuko.
- **Ikusteko kirol bat. Eta egiteko?** ▶ Askok ditut gustuko baina, bai ikusteko eta bai egiteko, futbola aukeratuko nuke.
- **Lerun ala Mintxeta?** ▶ Mintxeta.
- **Barre egin ala eragin?** ▶ Hobe nik egin.
- **Kalean oinez ala Mintxetan korrika?** ▶ Mintxetan korrika.
- **Idolorik?** ▶ Orain ez daukat idolo konkreturik, baina gaztetan Iribar.

IRATI AGIRREAZALDEGI

HAIZEEN BAITAN

DOINUA:

Iragan egun batez

Desertuko haizeak dakarren lantuak, umezurtz utzi ditu txorien kantuak. Belatzek ziruditen uso bihurtuak... Baina ez bide zuen nahi hori patuak... Zenbaten esperantzak kolpez suntsituak?

Iparreko haizea elurren gidari, esperantza iturri ez al da nabari? berriki galde zaio lili horiari, astigar itzaletik nahi zuenentz jalgi. Auzolagun izaki behar elkar hadi...



JON BARANDIARAN

DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN

ZALDUA
ITURGINTZA

GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

38 elgoibartar izango dira epaimahakide

Irailaren 22an egin zen epaimahaia osatzeko zozketa. 1996. urteko martxoan hasiko dira aukeratuak izan direnak epaiketetan parte hartzen. Elgoibarren 38 pertsonaren izenak atera dituzte kalera. Zerrenda behin-behinekoa da. Pasa den asteazkenean, hilak 15, izan zen azken eguna alegazioak aurkezteko. Hortik aurrera, behin-betiko zerrenda zehaztuko da.

Herriarrez osatutako epaimahaia arlo penaleko epaiketetan bakarrik egongo da. Esate baterako, pertsonen kontrako delituetan, funtzionarioek euren karguetan egindako delituetan, ohorearen, askatasunaren eta ingurugiroaren kontrako delituetan eta abar, hilketak kasuetarako, berriz, ez da. Herri epaimahairik osatuko. Halere, zigorra jartzea epailearen esku

egongo da. Zozketan aukeratuak izan direnak ezingo dute ezetzik esan arrazoiren bat ez badute aurkezten. Izan ere, epaimahaian ez aurkezteagatik 25.000 eta 250.000 pta. arteko isuna jarriko da. Halere, epaimahaian parte hartzeagatik, eguneko 10.000 pta. ordainduko da eta hotelen batera joan behar duenari ere, administrazioak ordaintzen dizkio gastuak.

Nola ikusten duzu zure burua epaimahakide?

Maitane Cid
22 urte



"Eskutitza hartu naban eguna baino zeozer lehen entzun naban lehen aldiz epaimahaixen kontua baina sekula ez dozu pentsatzen zuri tokauko jatzunik. Harritxutxa geratu nitzan baina nahiko trankil, tokau arren igual ez zaitxue deitzen epaiketa batian parte hartzeko. Alde batetik arduria da, ze ez dakit ze punturarte dauan ondo legietaz ezer ez dakixan jendiak erabakitzea pertsona bat erruduna dan ala ez eta gertatu leike norbaitek ondo ez jokatzia, igual arrazista dan batek arrazagatik bakarrik epaitu dezake norbait. Dana dala, esperientzia bezela interesantia eta aberatsa izan laikela iruditzen jata."

"Ezer entzun gabe nakan, papela ailegatu jatan etxera eta hasieran ez nion kasorik ein, txorrada bat izango zala edo. Hasieran pentsatu naban atzera botatzia baina itxuria oso zaila da eta epaiketetara jun bihar banaiz, jungo naiz. Nerezat preparautako jentia jun biharko zan hola-kuetara, bestiok ez dakagu idearik ere legietaz eta kontzientziak esaten digunan arabera esan biharko dou zeozer ondo dauan ala ez. Esperientzia interesantia izango dan ezin esan, zeozer inetersantia izateko lehenengo ulertu ein bihar da eta kasu honetan..."

Jose Mari Egaña
46 urte



Epaimahaigai elgoibartarren behin-behineko zerrenda

- M.Dolores Abaitua (54 urte)
- Jose M. Aizpurua (57 urte)
- Cristobal Alvarez (30 urte)
- M.Isabel Aranbarri (59 urte)
- Angela Armero (55 urte)
- Maria Juncal Arriola (21 urte)
- Jose Maria Astigarraga (47 urte)
- M. Carmen Barandiaran (50 urte)
- Martin Beristain (53 urte)
- Manuel Jesus Cancio (34 urte)
- Maitane Cid (22 urte)
- Ceferina Diez (55 urte)
- Jose Maria Egaña (46 urte)
- Juan Agustin Esnaola (65 urte)
- F. Javier Fernandez (34 urte)
- Javier Galindo (27 urte)
- Jacinto Garcia (65 urte)
- Clementina Gonzalez (44 urte)
- Luis Gurrutxaga (46 urte)
- M.Luisa Iglesias (48 urte)
- Jesus M. Iriondo (35 urte)
- Jose M. Kortaberria (31 urte)
- Antonio Leon (29 urte)
- J. Antonio Lopez De Sabando (52 urte)
- Antonio Martin (71 urte)
- Iñaki Merino (21 urte)
- Javier Muguerza (19 urte)
- M.Jose Ondarre (36 urte)
- M Jose Ostolaza (35 urte)
- Antonio Perez (73 urte)
- Carmen Rey (21 urte)
- Juan Rojo (55 urte)
- Rosario San Martin (45 urte)
- Juan Jose Sastre (46 urte)
- Victor Torres (70 urte)
- Pablo Luis Uribebeberria (42 urte)
- Jose Lorenzo Villar (47 urte)
- Xabier Zubiaurre (21 urte)

Desagertutako azoka plaza

- Gaur egungo merkatu plazaren toki berean zegoen.
- Oinplanu angelu zuzena zuen eta bi zatitan banatuta zegoen, sarrerako arkupea eta espazio handi bat, Italiako "logia"ren antzera.
- Aurreko fatxada harlanduz egina zegoen. Basamentua, zutabeak, frontoia, leihoak etab kararizko harlanduz eraiki ziren, batzuk bota berria zen San Frantzisko komentutik aprobetxatu zirelarik. Atzeko fatxada zarpeatua zen eta leiho dinteldu ugari zituen.
- Toskana ordenako hamar zutabe klasikok eusten zioten arkupearen teilatuari, fatxadari nortasun handia emanaz. Arkupearen ertzetan zutabe bana zegoen eta gainontzean binaka zihozten lerrotuak. Erdian eta kale aldean, basamentuari itsatsia, iturri bat eta uhaska luzezka bat zeuden.
- Arkupearen teilatuaren gaineko aldean eta nabearen erlaizaren artean, hamasei leiho karratu ireki zeuden. Erdian, berriz, frontoi klasiko bat zegoen. Alboko bi ertzetan obelisko txiki bana eta erpinean bolen dekorazioa zituen, bukaera burdin forjatuzko gurutze batek ematen ziola.
- Azoka plazak solairu bakarra zuen, altuera handiko espazio zabala. Halere, sotoa bazuen asto gorta zerbitzua betetzen zuena.
- Azoka plaza Antonio Arrilaga Arriola sendagilea alkate zenean eraiki zen, Primo De Riveraren diktadura garaian. Aurrekontua 173.265,78 pta.koa izan zen.
- Proiektua Pedro Muguruza Otaño elgoibartarrak diseinatu zuen.
- Inaugurazio ofiziala 1926ko San Bartolome egunean izan zen.

PELLO ARRIETA



AZKUE

Victoriano Azkue

Argazkilaria (1890-1950)



- 1890ko martxoaren 23an jaioa.
- Lanbidez okina zen. Familiak okindegia eta janaridenda zeukan gaur egun "Fotero" okindegia dagoen lekuan. Garia ehotzeko errota ere bazeukaten.
- "Fotero" ezizena gerra garaian egiten zen "fota" izeneko ogitik datorkie.
- Argazkilaritza izugarri gogoko zuen ofizioz okina zen arren.
- Gaztetan anaiarekin borroka "grekorromanoa" egiten zuen.
- Hogei urte zituela hartu zuen estrainekez argazki kamara bat. Anai-arrebei erretratuak ateratzen lehenengo eta herriko ekitaldi kultural eta sozialak erretratatzeko gero: abesbatzak, eztaiak...
- Elgoibarren lehendabiziko argazkilaria dugu. San Frantzisko kalean izan zuen estudioa.
- Profesional modura lan egin zuen hil arte. Hiru belaunaldiz osatutako tradizioa hasi zuen. Atzetik Julian Azkue Villar-ek jarraitu zion eta gaur egun honen semeak.
- 1950eko martxoaren 23an hil zen.



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak*

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

MOTZAK

Areto Futboleko monitore ikastaroa

Deba Behoko eta Garaiko Udal Kirol eta Euskara Zerbitzuek antolatzen duten "Kirola Euskaraz" programak areto futboleko eta txirrindularitza monitore titulua ateratzeko ikastaroak antolatu ditu. Areto futboleko ikastaroa Elgoibarren burutuko da abenduaren 1, 2, 3, 15, 16 eta 17an, ostiraletan arratsaldeko 7etatik 9etara eta larunbat eta igandetan 9etatik 1era bitartean. Ikastaroaren zenbatekoa 4.000 pta.koa da eta izena emateko azken eguna hilaren 28a. Txirrindularitza zuzendari ikastaroa Oñatin izango da hilaren 25 eta 26an, abenduaren 2 eta 3an eta 16 eta 17an. Hil honen 20an bukatzen da izena emateko epea eta prezioa 8.000 pta.koa da. Beste bi ikastaro ere burutuko dira "Kirola Euskaraz" programaren barruan. Oinarrizko prestakuntza fisikoa eta bizkar hezurreko arazoak uretan tratatzeko ikastaroak izango dira. Izena emateko Kirol Zerbitzuko 74 44 15 zenbakira deitu.

Xake Txapelketa hasiko da hilaren 25ean

Nazioarteko Xake Txapelketaren 5. edizioaren aurkezpena egingo da asteazkenean, hilak 22, eguerdiko 1ean Kultur Etxean. Larunbatean, hilak 25, hasi eta abenduaren 3ra arte luzatuko da txapelketa. Partidak eguero jokatuko dira arratsaldeko 4etatik aurrera Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Oraindik ziurtatu gabe dago zeintzuk diren etorriko diren jokalaririk; ziburra den bakarra Ubilava da.



Luis Santamaria:

"Lehen karrera luzea izan da Behobiakoa"

■ **Pozik Behobia-Donostian egindakoarekin?** - Bai, noski. Ez nintzen marka ona egiteko asmoarekin joan. Ordubete eta hamabost minutik gora ibiliko nintzela uste nuen.

■ **Azkenean uste baino gutxiago, ez?** - Bai, 1:14:38 egin nuen.

■ **Lasterketa hau korritzen zenuen lehen aldia?** - Bai, zirkuitua nolakoa zen ikusteko asmoarekin joan nintzen. Lehen 10 kilometroak eta gero, ondo ikusi nuen neure burua eta erritmoa bizkortzen hasi nintzen. Gaintxurizketara arte ezin daitekeela fortzatu esaten dute. Puntu horretara arte lasai joan nintzen eta hortik erritmoa igotzen.

■ **Zure lehen lasterketa luzea izan da?** - Bai, luzerik sekula ez nuen egin. Normalean krosean aritzen naiz eta udan pistan. 15 kilometrotik gorako lasterketarik ez nuen sekula korritu.

■ **Zer moduzko esperientzia?** - Behobia-Donostia lasterketa berezia da. Lasterkari askorekin zaude korrika, jende ugari dago animatzen, entrenegarriagoa da.

■ **Elgoibartik 43 lagun izan zineten.**

- Askok, ez nekien hainbeste izan ginetik. Elgoibarren beti egon izan da korrikarako zaletasuna, ez dakit Mugerza krosagatik edo zergatik. Mintxeta ere hor



dago. Umeak atletismoan hasten dira eta berehala uzten dute. Beti futbolari eman izan zaio lehentasuna eta...

■ **Errepikatzerik?** - Seguruenez bai, baina ezin daiteke aurrez jakin nola egongo zaren hurrengo urtean. Baina ondo prestatzea espero dut.

■ **Lasterketarako bereziki entrenatu zenuen?** - Ez, urte osoari begira programatzen dut entrenamendua. Hori bai, lasterketa baino hilabete aurretik serie luzeagoak egiten hasi nintzen baina orain entrenamendu normalarekin jarraituko dut.


■ **Konpetizioan jarraitzen duzu?** - Bai, federatu fitxa egin behar dut. Kros federatuetan arituko naiz.

■ **Karakatera igotzeko asmorik?** - Baietz espero dut. Aprobata egiteko gogoia daukat. Indarra eta potentzia behar da, asko. Lasterketa oso gogorra da gorputzarentzat.

Jendea gogor entrenatzen ari da baina 31 minututan igotzea astakeria da.


■ **Eta Mugerza krosa?** - Ez dut uste. Lasterketa horretan maila benetan da altua.

• Adina: 22
• Zaletasunak: Mendia, musika, zinea...
• Korrikalari gogokoena? Martin Fiz, oso mutiko apala da.
• Atsedenerako eguna? Igandea



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar





Joan den ostiraletik larunbatera bitarteko haize bolada izugarriek Mintxetako harmailen teilatuan eta altzairuzko egituraren kalteak sortarazi zituzten. Lehenago ere haizete handiak izan diren arren, hiru haize korronte ezberdin elkartu omen ziren ostiraletan Mintxeta inguruan eta horrek eragin zituen kalteak. Ostegunean kendu zituzten zintzilik geratu ziren burdinak eta datorren astean arkitektoak kalteen nondik norakoak aztertuko ditu. Dena den, Elgoibarren ezezik, beste zenbait lekutan ere eragin zituen haizeak kalterik. Zumaian, futbol zelaiko harmailak apurtu egin omen zituen eta Arrasate aldeko enpresa batean ere teilatua eraman zuen.

MOTZAK

Patxi Arriola, Euskadiko ehiza txapeldun

Joan den astean Patxi Arriola elgoibartarrak "caza menor" deitzen den modalitatean Gipuzkoako Txapela irabazi zuela esaten genuen orri honetan. Oraingoan haruntzago joan da Patxi eta Euskadiko Txapela lortu du. Iragan igandean Zambrana inguruko Santa del Cierro herrian izan zen Euskadiko Txapelketan 6 eper eta 2 faisai ehizatu zituen elgoibartarrak Euskadiko Txapela bereganatu zuelarik. Beste titulurik eskuratzeko aukera ere izango du Patxik. Hilaren 25ean Manresan izango den Espainiko Txapelketaren final erdian parte hartuko du eta sailkatuz gero, abenduan Murtzian burutuko den finalean Espainiko txapela lortzen saiatuko da.

Larunbatean Atletismoa Mintxetan

Larunbatean, hilak 18, Gipuzkoako Txapelketari dagozkion frogak burutuko dira Mintxetako Udal Pistan goizeko 10,30etatik aurrera. Pasa den larunbatean bertan behera utzi behar izan zituzten frogak haizeak Mintxetan eragindako kalteengatik. Mintxeta Atletismo Taldeko eta Eibar eta Azpeitiko neska-mutilek hartuko dute parte alebin, infantil eta kadete mailetan. Izen-ematea 10etatik aurrera egongo da zabalik. Burutuko diren frogak honako hauek dira: altura jauzia, 150m., pisu jaurtiketa, jauzi hirukoitza, 300m., 60m. eta luzera jauzia. Zaletu guztiak Mintxetara hurbiltzeko animatu nahi die atletismo taldeak.

KiROL EMAITZAK

Futbola

Unión Txiki 0 - Elgoibar 0 (**Kadeteak**)
Euskalduna 4 - Elgoibar 2 (**Jubenilak**)

Areto Futbola

Nerea 4 - Elgoibar 4 (**1. maila**)
Elgoibar 1 - Antxeta 5 (**2. maila**)

Saskibaloia

Donostiako Hondartza 63 - Txankakua S.T. 46

Eskubaloia

Pagoaga Elgoibar 42 - Arrate Amaña 0 (**Kad. neskak**)
Ereintza 8 - Elgoibar 35 (**Kad.mutilak**)
Beasain 18 - Txankakua Elgoibar 18 (**Seniorrak**)

Futbitoa

Ametsa 4 - Aldavas 3
Roke 2 - S. Braga 3
Orbela 5 - Ikus Optika 1
Kosaskos 2 - Sanroketarra 1

Pilota (Gipuzkoako Txapelketa)

Arrieta/Eguren (Soraluze) 22 -
Gerrikabeitia/Karmel (Lagunak) 14 (**Kad.**)
Aldasoro/Irazusta (Ataun) 5 -
Gandiaga/Balzola (Lagunak) 22 (**Jubenilak**)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 18
12,00 Elgoibar - Añorga (**Kadeteak**)
15,15 Beti Sutan - Zestua (**2. erreg.**)
17,15 Elgoibar - Beti Ona (**Jubenilak**)

Igandea, 19

10,00 S.D. Eibar - Retuerto (**Jubenilak**)
12,00 S.D. Eibar - Antoniano
13,50 Urki A - Urki B (**2. jubencilak**)
15,30 Gazteak - S. Tomas Lizeoa (**2. jub.**)

Areto Futbola, Kiroledegian

Ostirala 17

22,30 Elgoibar - Antxeta (1. maila)

Eskubaloia, Kiroledegian

Larunbata, 18

16,00 Elgoibar - Urola (**Jubenilak**)
17,30 Elgoibar - Don Bosco (**Kad. mutilak**)

Igandea, 19

12,00 Txankakua E. - Tolosa (**Seniorrak**)

Saskibaloia, Kiroledegian

Larunbata, 18

19,00 Txankakua S.T. - Mundarro S.B.T.

Futbitoa, Urasandin

Igandea 19 (Arbitraia: Sanroketarra)

10,00 Berrogei Duro

11,00 S. Karapola - Karkis

Oraiko Disko - Pedruskos

12,00 Aterpe - King Kong

Lucky Luke - S. Karapola

Pilota, Ikastolako Frontoian

Ostirala, 17 (Gipuzkoako Txapelketa)

22,00 Garate/Karmel (Lagunak) - Behar

Zana (Billabona) (Kadeteak)

Gandiaga/Balzola (Lagunak) - Ubera

II/Laskurain (Elgeta) (Jubenilak)

Sekula baino elgoibartar gehiagok hartu zuen parte Behobia-Donostia lasterketan

ELGOIBARTARREN sailkapena

IZENA	Denbora	Postua
1- Iñaki Jaio Bustindui	1:13:30	175
2- Luis Santamaria	1:14:38	216
3- Jose Felix Iglesias	1:15:49	271
4- Imanol Larrañaga	1:21:25	678
5- Mikel Legorburu	1:25:09	1117
6- Tomas Arrieta	1:26:46	1380
7- Iñigo Etxaniz	1:26:59	1429
8- Javier Torquemada	1:28:47	1745
9- Jesus Mari Makazaga	1:31:21	2220
10- Asier Arrieta	1:32:00	2331
11- Jesus Mari Lersundi	1:32:18	2394
12- Francisco Frias	1:33:8	2593
13- Juan Carlos Raña	1:34:03	2800
14- Javier F. La Lama	1:35:35	3132
15- Pilar Arriola	1:35:59	3228
16- Ekaitz Isasi	1:36:04	3247
17- Isaak Bergaretxe	1:37:03	3452
18- Daniel Arenas	1:37:28	3536
19- Alberto Agirreazaldeg	1:38:19	3744
20- Arkaitz Irureta	1:38:21	3752
21- Iñaki Gorosabel	1:39:17	3974
22- Eugenia Gonzalez	1:39:55	4137
23- Mario Iranzo	1:40:19	4253
24- Antxon Alvarez	1:42:10	4677
25- Jose Inazio Izagirre	1:43:18	4907
26- Pilar De La Lama	1:44:31	5187
27- Daniel Bastida	1:44:57	5272
28- Eduardo Uribe	1:44:58	5274
29- Enrike Antxustegi	1:46:51	5665
30- Xabier Arriola	1:47:34	5811
31- Asier Orbea	1:47:35	5816
32- Mikel Arriola	1:47:36	5818
33- Inaxio Garmendia	1:50:09	6321
34- Andres Alberdi	1:50:09	6322
35- Eduardo Santos	1:50:15	6350
36- David Mekolalde	1:52:15	6642
37- Andoni Etxeberria	1:58:35	7475
38- Arrate Zubia	1:58:35	7476
39- Lourdes Zubiaurre	1:58:58	7506
40- Mari Jose Estibariz	1:58:58	7507
41- Ismene Fulgencio	1:59:10	7527
42- Alex Sasiain	1:59:15	7533
43- Javier Iriondo	1:59:42	7566

Berrogeita hiru elgoibartarrek hartu zuten parte joandako igandean Fortuna Klubak antolatzen duen Behobia-Donostia lasterketa ezagunean. Iaz baino hiru partaide gehiago joan dira elgoibartik aurtan.

Elgoibartarren artean Iñaki Jaioen izena eman zuen Jesus Larrañaga mendarotarra helmugaratu zen lehena. Bere kategorian 69. postua lortu zuen. Sailkapeneko hurrengo lekua Luis Santamaria gazteari dagokio, eta atzetik Jose Felix Iglesias. Iaz bezala, sei emakume elgoibartarrek korritu du aurtan Behobia-Donostia. Helmugan sartu zen lehen emakume elgoibartarra Pilar Arriola izan zen, bere kategorian 27. postuan.

Eguraldi ona lagun, lasterketa korritzen ezezik, ikusle gisa ere elgoibartar mordo bat izan zen Donostian igandean. Aurtan ez da Elgoibartik autobusik antola-

tu eta elgoibartar asko eibartarrek antolatu zuten autobusean joan ziren. Hauetariko batzuk dira argazkian agertzen direnak.

Errekorrak hautsiz

Ordubetez azpiko Alberto Juzgadore denbora ez da izan aurtan Behobia-Donostian hautsi den errekor bakarra. Irteeratik 9.011 lasterketari atera ziren, iaz baino mordo bat gehiago. Hauetatik 8.000tik gora lagunek lortu zuen ibilbidea burutzea. Aipatu bezala, elgoibartarren partaide-

tzak ere errekorra hautsi du aurtan.

Edozein erreklamazio egiteko hilaren 30era arteko epea jarri dute antolatzailleek.

43 elgoibartarrek hartu zuten parte Behobia-Donostian, hauetatik sei, emakumeak



Eibarko autobusean joan ziren elgoibartarrek ditugu argazkikoak.



Galiza Etxean Festa do Magosto edo gaztainen festa ospatu zuten pasa den igandean. Galiza Etxeak Urasandin duen elkarteak 500 kilo gaztaina erre zituzten udazkenero egiten duten bezala. Gaztaina erreei bultza egiteko, 600 litro ardo banatu zituzten. Udazken bete-betean jai giro epelean pasa zuten Galiza Etxean igande arratsaldea.

Santa Zeziliaren Somenezko ekitaldiak

Datorren asteazkenean, hilak 22, musiko-koen patroia eguna, Santa Zezilia eguna ospatuko da. Herriko musika elkarte ezberdinek hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun horretarako. Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute Herriko Antzokian arratsaldeko 7,30etatik aurrera. Bi zatitako kontzertuan 10 saio ezberdin izango dira: pianoa, akordeoia, txistularien banda, kitarra, klarineta eta pianoa, txeloa eta pianoa, etab. Itxaropena abesbatzak bere aldetik, kontzertua emango du Plaza Handian arratsaldeko 8etan honako egitarau honekin: "Signora delle Cime", "Azulao", "Can't help...", "Yesterday", "Good night sweet heart", "Ama", "Jeiki jeiki" eta "Saratarra". Bestalde, San Bartolome Ikastolako ikasleek ere Santa Zezilia eguna ospatuko dute asteazkenean. Goizeko 8,30etan Plaza Handian elkartuko dira Ikastolarainoko ibilbidea bertsoan kantari egiteko.



• • •
Geurea
artisans lana da

San Frantzisko 49 behea
Tel 74 28 75 • 20870 ELGOIBAR

- PASTELAK
- PASTAK
- TARTAK
- BONBOIAK
- OPILGINTZA INTEGRALA

EGUNERO IREKITA

eta hemendik aurrera

- Baserriko ogia
- Ogi integralak
- Haziekin egindakoa
 - Zekalezko ogia
 - Txapata
 - Sobaua
 - Baguette
 - Moldeko ogia
 - Zopakoa
 - Egurrezko labeko ogia



Lau hilabete Ameriketean

Ekainean eman genuen Council programaren berri. Gaurkoan, berriz, handik itzuli eta bertako esperientzia kontatzera etortzeko eskatu diegu lau laguni. Gemma Iribarren, Mertxe Faces, Koro Ansola eta Juanjo Martin, Ocean City izeneko herri batean egon ziren Maryland-en. Bi eta lau hilabete artean egin zituzten eta, aitortu digutenez, datorren urtean itzultzeko asmoa dute.

Hasiera batean Ingalaterrara joateko asmoa bazuten ere, Juanjo Martinek Council programaren berri eman zien eta azkenean Estatu Batuetara joatea erabaki zuten. Laurak, Gemma, Koro, Mertxe eta Juanjo Maryland-eko Ocean City herrian egon dira, turismotik bizi den herri txiki batean. Juanjo



“hasieran plantxa batekin estanpatutako kamisetak saltzen zian denda baten egon ginan. Gero, Mertxe eta ni almazen haundi batzutura jun ginan”. Astean egun bakarra zuten libre eta bataz-beste zazpi ordu egiten zuten lan, “100.000 pta.ko soldata ordaintzen zebeñ”. Bertan bizitzeko nahikoa, “hemen baino hobeto bizi dia han, erretzaua da ze gauza basikuak oso merkiak dia”, esan digu Korok. Laurak batera bizi izan dira, “etxe bat alkilatu gendun”. Ingelesa ikasi ere ikasi dute, “nahiz eta laurak batera bizi, lanian beti ingelesez egin bihar gendun eta kalera bertako jendiakin urtetzen ginan, beraz...”. Gainera, amerikarren azentoa ekarri omen dute, “beti pegatzen da piskat”.

Turismoa

Turismoa egiteko ere aprobetxatu zuten. Gemmak bi hilabete egin zituen eta azken aldera Carolina del Nortera joan zen, “lagun bat nakan eta bera bisitatzera jun nitzan. Juanjo Cincinnatiara jun zan, lagun batena hau ere eta azkenengo bost egunak New-York-en pasatu genitxun batera”. Koro eta Mertxek, berriz, lau hilabete pasatu dituzte bertan eta azkenengo egunak “Canadan egon ginan, Toronton batez ere, eta gero New-York-en”. Oso toki politak omen daude, “New-York gabaz ferritxik ikustia inpresionantia da, gauzarik politxena”, aitortu digu Gemmak. Hurrengo urtean ere beste horrenbeste egiteko asmoarekin itzuli dira, “aukeria baldin badakagu seguru bueltatuko gerala. Esperientzia politxa da toki, kultura eta jende

Partyak

Ohitura oso ezberdinak dituzte amerikarrek, “hasieran oso txokantia egin jakun. Batek, erropiari, ez jako bat ere inportantziarik ematen eta, gainera, barruko erropia erakusten jutila modan dago”. Jatorduek ere ez dute zerikusirik hemengoekin, “etxetik kanpo bazkal-tzen dabe, hamburgesak gehixenetan eta afaldu ere... Hola daude gero ixa danak, oso lodixak”, aitortu digu Gemmak. Oso ondo ibili dira, “gauero urtetzen ginan. Zetarako dana itxita egoten da eta ohitxuria jaixak etxian eita edarixa egoten da eta jendez a tope, pelikuletan bezela, igual-iguala. Jendia ezagutzia oso erretza da baina gero, ez da hemen bezela harremana luzerako mantentzen. Han egoten bazaitxue ondo eta bale. Berriz ikurraldi bikaina izan zuten eta ia-ia hurakanik ere ezagutu zuten, “eskerrak azkenengo momentua itsasaldera desbiatu zan”.

aurretik ere egon izan da bertan, beraz, ez zuten inolako arazorik izan. Hiru neskak, Council programari esker, bisadoa lortu eta lan egiteko baimenarekin joan ziren. Korok esan digunez, “lana topatzia erraza izan zan. Turismotik bizi zan herrixa eta dendetan nahi beste lan zakan”.

100.000 pta.ko soldata

Urtean zehar 7.000 biztanle dauden arren, udan milioi erdira igozten da. Gemmaren hitzetan,

Salerosketak

ORDENAGAILU BAT saltzen dut: IBM AT 286 (1024 Kyteper UGA pantaila, 44 M.B.eko disko gogorra, 3 1/2 eta 5 1/8 eko disketeak, 101 tekladun teklatura 3-31 DOS.
☎ 74 19 21 Maite

PISTAKO BIZIKLETA bat saltzen dut egoera oso onean. Berria.
☎ 74 01 84

Komedorerako aulki batzuk saltzen ditut. Egoera oso onean daude.
☎ 74 37 22 (goizez 8-10)

3 urteko ASTOA eta pare bat urteko BEHI ESNE DUNA erosiko genituzke.
☎ 74 37 68 Antonio (Aranbeltz baserria)

1,05 oherako BI EDREDOI SALTZEN DITUT modu onean.
☎ 74 05 67 Maria Luisa

MENDIKO BIZIKLETA txiki bat saldu nahi dut. Orbea markakoa.
☎ 74 34 06

GAC ZIKLOMOTORE BAT saltzen dut. Lau urte ditu, beltza da eta aseguruia dauka 96ko maiatza arte. Ia berria dago, 50.000 pta. Ikusteko: CIMDE P. Muguruza 23
☎ 74 08 52 / 74 02 43 Txus

FRIGORIFIKO TXIKI BAT saltzen dut. Estrenatu gabe. 23.000 pta.
☎ 74 01 51

Opel Kadet GSI 1.800 inyección SS-AJ 76.000 km. salgai.
☎ 19 19 54

BI AKUMULADORE eta HIRU BEROGAILU salgai. Erabili gabe, egoera oso onean.
☎ 74 09 23

Etxebizitzak

SANTA KLARAN PISU BAT SALTZEN dut. 24. zenbakia 5B.
☎ 74 32 98

PISU BAT ALOKATUKO NUKE Elgoibarren.
☎ 74 21 25 Antxon Salegi

ETXEBIZITZA BAT saltzen dut SORALUZEN.
☎ 74 34 05 / 74 34 06
M. Carmen edo Aurora

PISU BAT ALOKATU NAHI DUT neska batekin Elgoibarren edo Eibarren.
☎ 74 16 30 Maria Oliva
Goizez 9,30-13,30

ETXEBIZITZA BAT ALOKATU NAHI DUT Elgoibarren. Altzariak badauzka hobe.
☎ 74 28 36

Pertsona bat behar dut Donostiako OKENDO kalean PISUA konpartitzeko.
☎ 42 51 49

Lana

CI KARNETA dut eta banaketa lanak, egiteko, ambulanziaz, taxiak, 16 tn.tako kamioiak gidatzeko prest nago.
☎ 74 14 96 Izaskun

Neska bat KANGURO LANAK egiteko prest dago.
☎ 74 24 53 Yoli

Dietetika eta Nutrizio tekniko espezialista, klinika auxiliar eta farmazia auxiliar tituluduna lanerako prest dago.
☎ 74 24 48 Marta

Neska euskaldun bat ETXEKO LANAK EDO UMEAK ZAINTEKO PREST dago.
☎ 74 07 82 Aurkene
☎ 14 77 64 Manoli

Garajeak

GARAJE ITXI BAT saltzen dut Arregitorren. 38,19 m²
☎ 74 30 81
Gaueko 9,30etatik aurrera

Partikularrak

Injinerutza eta magisteritza tituludunak KLASE PARTIKULARRAK ematen ditu.
☎ 74 01 48 Alazne

MARRAZKETA LINEAL ETA DIEDRIKOKO klaseak ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

OHOko KLASE PARTIKULARRAK ematen ditugu Elgoibarren.
☎ 68 20 42 / 67 06 49

ADMINISTRARITZA eta EGBko partikularrak ematen ditut. Asteartea, asteazken eta ostirala 3,00-8,00
☎ 74 40 86 Maite

Bestelakoak


Hilaren 15ean 12 urte bete zituen Olaia Martinezzi zorionak senide guztien eta bereziki URKOren partez.

Bestelakoak

Karkizano dendan KARTERA BT AGERTU da. Galdu duena pasa dadila jasotzera.

Karitasek LABADORA bat behar du.
☎ 74 15 09 - 74 12 57

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak...740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpeketasun Z. 741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...741008
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri Eskola74 08 79
I.M.H.74 41 32
Instituta74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 27 59
El Correo Español...74 10 82
Egin.....10 84 21
Zazpiki74 34 74

17 OSTIRALA

16,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an

19,00 LAGUN TALDEAREN
ASANBLADA OROKORRA

✓ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

"Apolo XIII"

18 LARUNBATA

10,00 KARAKATERA IGOERA

Antolatzailea: Urgazi eta Morkaiko

10,30 ATLETISMOA

✓ Mintxetan

10,00 IKASKETA TEKNIKOEI
BURUZKO IKASTAROA

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Kutxa

11,30 ZAZPIKIREN BILERA

✓ Ganbaran

17,00 INTSUMITUEN MANIFARA
AUTOBUSA

✓ Plaza Handitik

19,30-22,15 ZINEA

"Apolo XIII"

19 IGANDEA

16,30-19,30-22,15 ZINEA

"Apolo XIII"

20 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Apolo XIII"

21 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

"Malicia"

(Ikuslearen eguna)

22 ASTEAZKENA

08,30 IKASTOLAKO HAUREN
SANTA ZEZILIAKO KALEJIRA

✓ Plaza Handitik Ikastolaraino

09,00-12,00-19,00 ZINEA
ERTAINETAKO IKASLEENTZAT

"La niña de tus sueños"

✓ Herriko Antzokian

13,00 XAKE TXAPELKETAREN
AURKEZPENA

✓ Kultur Etxean

19,30 MUSIKESKOLAKO
IKASLEEN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

20,00 HITZALDIA ETA ORGANO
KONTZERTUA

Gaia: "Organoa euskal liturgian"

Hizlaria: Pello Zabala

Organojolea: Aitor Olea

✓ San Bartolome parrokian

Antolatzailea: Parrokia, Eliz

Abesbatza eta Musika Fundazioa.

20,00 ITXAROPENA
ABESBATZAREN KONTZERTUA

✓ Plaza Handian

23 OSTEGUNA

22,00 GANBARAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: AEK

24 OSTIRALA

20,00 ORGANO KONTZERTUA

Organojoleak: Jose Luis Francesena
eta Myriam Uranga.

✓ San Bartolome parrokian

Antolatzailea: Parrokia, Eliz

Abesbatza eta Musika Fundazioa.

22,15 ZINEA

"Un paseo por las nubes"

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
18, larunbata:	Bidasolo	Bidasolo
19, igandea:	Bidasolo	Bidasolo
20, astelehena:	Yudego	Escala
21, asteartea:	Yudego	Escala
22, asteazkena:	Yudego	Escala
23, osteguna:	Yudego	Escala
24, ostirala:	Ormazabal	Zabaleta

OKINDEGIA:

19, igandea: EIZAGIRRE



Apolo XIII

Zuzendaria: Ron Howard
Antzezleak: Tom Hanks, Bill Paxton, Kevin Bacon, Ed Harris, Gary Sinise.

Astronauta talde batek ilargira bidaia egiteko aukera du. Ilargia zapaltzeko asmoa, asmo hutsean geratuko da arazoak bata bestearen atzetik gertatzen hasiko baitira. Ezingo dira ilargira iritsi eta gainera bizia galtzeko arriskuan daude. Segimendu basetik espedizioaren buruak hiru astronautak bizirik bueltatzeko ahaleginak egingo ditu.

Malicia

Zuzendaria: Tony Sott
Antzezleak: Bill Pullman, Alec Baldwin, Nicole Kidman.

Maitasun eta krimen istorioa kontatzen du pelikulak. Thriller psikologikoa da. Ezustez eta sustoz beteriko pelikula honetan senar-emazte batek bizi duen gezurrez beteriko harremana azaltzen da. Emaztea da oraingoan senarra engainatzen duena.

*Urtebete egin dugu
dagoeneko,
mila esker
elgoibartar guztioi.*